

**GORKA BEREZIARTUA**

Ihes eder baten ondotik,  
ihes berriak etorriko dira

ALDIZKARI HONETAN BERTAN Iñigo Astizek xehe-xehe azaldu zituen *Ihes ederra* liburuen bertuteak duela hilabete batzuk (ARGIA, 2.203. zenbakia), eta beraz, ez da nire asmoa Etxartek eta Urrutiak egindako lanaren aupamen berririk egitea. Denbora darama dendetan, irakurleek eskutik eskura darabilte, eman du zeresana franko, baita emango ere, eta jurnalistak ez dauka daborduko ezer interesgarririk eransteko. Ez liburuaz behintzat. Bai, beharbada, sortu duen efektuaz.

Esplika nadin: aspaldian ez zuen irakurleak ikusiko argitaletxe inportante baten aldetik halako posturarik testu hutsez osatuta ez dagoen nobela baten alde. Komiki gutxi euskaraz, argitaletxe espezializaturik ez Saureren salbuespenarekin –oasia, baina txikiegia– ezta, orain arte behintzat, editorial estandarretan sailik, halako lanik publikatzeko.

Baina orain arte diot, ematen baitu hori aldatzera  
doala: Alberdaniak erruletako jokalariei ausartarena  
egingo du eta irabazi dituen fitxak  
berriaz jarriko ditu mahai gainean.  
Zurumurruek diote sail bat sortzea  
dutela buruan, urtean pare bat irudi-  
eleberri publikatzeko asmoarekin.  
Eta gidoilari-marrazkilari batzuk ari  
dira lanean dagoeneko.

Ez da Alberdaniaren apustua bakarrik: kurioski, hiruzpalau asteko tartean beste bi komikiren berri ere izan dugu. Bata, berrargitalpen bat: *Urbietta kaleko borroka* liburuxkaren hirugarren edizioa aurkeztu berri baitute Potxo Edizioak eskutik.


Felix Likiniano militante anarkistak 36ko Gerran Donostiaren defentsan egindako lana du ardatz. 1979an argitaratu zen lehenengoz, eta egilea, J.J. Pi, nor den argitzeke dago oraindik.

Beste komikiaz are informazio gutxiago eskainiko dugu, misterio giroan gaudenez: antzerkilari ezagun batek egin du gidoia, Euskal Herri kontinentaleko mendietan dago girotua eta... horraino irakurriko dugu, oraingoz.

Duda gutxi: berri onak dira. Euskarazko komikien irakurlegoa sortzeko aukerak ugaritu egingo dira obrak kopurua apurka emendatzen bada. Eta pentsatzen jarrita, arraroa ere izan da orain artekoa: idazle eta marrazkilariak ez dira falta Euskal Herrian, baina elkarlan iraunkorrik ez da sortu. “Thes ederra efektua”-k –barkatuko didate Etxartek eta Urrutiak sintagma puztuegia iruditzen bazaie– ekar ditzala, beraz, ihes berriak. ■

*Ihes ederra* nobela grafikotik hartutako irudi bat.





**Kaluoka'hina, uharri sorgindua**

Uharria salbatu nahi duten arrain koloretsuen abenturak bizituko dituzu **Planetariumeko saio berri** honetan.

**gizarte ekintza**

**hezkuntza**

Mikeletegi pasealekua 43-45  
20009 Donostia  
kutxaespacio@kutxaunea.org  
www.miramón.org  
943 01 24 78

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

**kutxa**